

## Iñaki Garitano-k bere Tesia irakurri du

2014/02/17

Otsailaren 14an, goizeko 11:30etan Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoko Iñaki Garitano Garitano Doktoregaiak bere doktore-tesia aurkeztu zuen Polo Garaiako Auditorioan. Tesiaren izenburua Behavioral Modeling for Anomaly Detection in Industrial Control System eta tesi zuzendariak: Roberto Uribeetxeberria eta Urko Zurutuza. Gainera Bikain Cum Laude kalifikazioa lortu zuen. Honetaz gain, Europako Doktore aipamena jaso zuen.

Epaimahaia horrela osatu zuen:

- Mahaiburua: Javier Lopez Muñoz (Universidad de Malaga) Dk. Jn.
- Mahaikidea: Eduardo Jacob Taquet (University of the Basque Country) Dk. Jn.
- Mahaikidea: Julián Flórez (Vicomtech) Dk. Jn.
- Mahaikidea: Christopher Dennett (University of Wolverhampton) Dk. Jn.
- Idazkaria: Felix Larrinaga Barrenetxea (Mondragon Unibertsitatea) Dk. Jn.

Kontrol Sistema Industrialen (KSI) eboluzioak, Informazio eta Teknologien (IT) munduko ahultasunak izatera bultzatu ditu. Horrela, eraso baten aurrean, ondorioak latzak izan daitezkeelarik. Tesiaren helburua, KSIak osatzen dituzten gailuen arteko komunikazioen ereduak sortu eta hauek erabiltzeko gai den Anomalia Detekzio Sistema sortzea izan da. Horrela, bi estrategia desberdin sortu dira, sare trafikoaren eduki eta denboran oinarritzen direnak.



Iñaki Garitano Garitano-ren tesia